

## 'Bullying eta Cyberbullyingaren inguruko tailerra: kasu praktikoak' ikastaroaren balorazioa

**Gazteen Euskal Behatokiak 2024ko formakuntza planeko bigarren ikastaroa antolatu du**

'**Bullying eta Cyberbullyingaren inguruko tailerra: kasu praktikoak**' ikastaroaren bi edizio antolatu ditu Gazteen Euskal Behatokiak otsailean. Prestakuntza-ekintza honen helburua hezkuntza-eragileei bullying-kasuak goiz detektatzeko beharrezko tresnak eta estrategiak ematea da, eta, batez ere, inplikaturako pertsona guztiekin esku-hartze arin eta eraginkorra egiteko gakoak ematea.


Ikastaroa **Saioa Magunazelaia Gonzalezek** (Bilbo) eta **Sara González Murok** (Donostia) eman dute.

**34 lagunek** partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilekin:

- % 53 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Beste % 44 gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Azken %3ak bestelako lan-profilak batzen zituen.

Ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

### Ikastaroaren balorazioa (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta*